

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

#### 2025-2026 ikasturtean euskara ikasteko Lapuebla de Labarcako Udalaren laguntzak

Euskara ikasteko laguntzak arautzen dituzten indarreko oinarrietan jasotakoarekin bat etorriz, honen bidez 2026rako deialdia egiten da, 2025-2026 ikasturtean (2025eko urriaren 1etik 2026ko ekainaren 30era arte) egiten diren eskola jardueri dagokiena.

##### Lehenengoa. Onuradunak

Ordenantza honetan ezarritako laguntzak eskuratu ahal izango dituzte Lapuebla de Labarcako udalerrian erroldatutako pertsona fisiko guztiek, honako baldintza hauek eta laugarren oinarrian ezarritakoak betetzen badituzte:

\* Lapuebla de Labarcako udalerrian erroldaturik egotea diruz lagun daitekeen ikastaroa hasi baino urtebete lehenagotik gutxienez eta etengabe.

\* 16 urte baino gehiago edukitzea.

\* Euskara ikastegi batean matrikulatuta egotea 2025-2026 ikasturtean (2025eko urritik 2026ko ekainera arte) lehenengo oinarri arautzaileak zehaztutako edozein ikastaro motatan.

\* Ezin dira onuradun izan Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2. artikuluan jasotzen dituen egoeretako batean dauden pertsona fisikoak edo erakundeak.

\* Ezin dira dirulaguntzaren onuradun izan laguntza hau jasotzeko kontuan hartzen den aldiaren hasieran derrigorrezko eskolatze adina duten pertsona fisikoak, eskolatuta egon ala ez.

\* Egunean eduki behar dira Lapuebla de Labarcako Udalaren diru kutxei egin beharreko ordainketak, eta beteta Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

##### Bigarrena. Xedea

Euskara ikastaroetako matrikula gastuak ordaintzeko udalaren dirulaguntzak, hizkuntza horren ezagutza handitzeko eta erabilera normalizatzeko.

##### Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

2017ko apirilaren 20ko Udalbatzaren erabakiaren bidez eman zitzaizen hasierako onespena, eta behin betiko argitalpena 2017ko uztailaren 5eko ALHAOn (76. zk.) egin zen, haien kontrako alegaziorik aurkeztu ez zenez behin betiko onetsi baitziren, bat etorriz 2024-2027rako dirulaguntza plan estrategikoarekin.

##### Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa ikasturteko matrikularen ehuneko 50 izango da.

##### Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko 15 egun naturaleko epea egongo da, ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera. Azken eguna baliogabea baldin bada, hurrengo egun baliodunera luzatuko da epea.

Eskaerak, deialdi honetan zehazten den ereduaren arabera, eta Alkatezari zuzenduta, adierazitako agiriekin batera, Lapuebla de Labarcako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (El Plano plaza 9), edo 39/2015 Legearen 16.4 artikuluko b) letratik e) letrara arte adierazten diren tokietako edozeinetan.

**Seigarrena. Aurrekontu partida**

Gastua indarrean dagoen udal aurrekontuko 2026.335.480 partidari egotziko zaio, zeinak 2.000,00 euroko hornidura baitu. Onartutako eskaerek zenbateko hori gaindituz gero, egiaztatutako zenbatekoaren proportzioan murriztuko dira laguntzak.

**Zazpigarrena. Instruktoea**

Lehenengo alkateordea izendatu da instruktore.

**Zortzigarrena. Eskaera orria**

Nik, ..... jaunak/andreak (NANa/AIZ: .....), .....n matrikulatutako ikaslea naizenez, honen bidez, Lapuebla de Labarcako Udalak euskara ikastegi ofizial edo homologatuetako matrikula gastuak (autoikaskuntza zentroak barne) finantzatzeko helburuaz 2025/2026 ikasturterako egindako laguntza deialdia dela eta,

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN HAU EGITEN DUT**

Ez nago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13.2 artikuluan jasotako inolako egoeratan.

Egunean nago zerga eginbeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta berariazko baimena ematen diot Lapuebla de Labarcako Udalari informazio hori zuzenean administrazio eskudunetatik eskuratzeko.

Helburu bererako laguntza edo dirulaguntzak jaso ditut beste erakunde publiko nahiz pribatu batzuetatik:

– EZ

– BAI; honako honek emana:.....; zenbatekoa: .....euro.

Horregatik guztiagatik,

**HAU ESKATZEN DUT**

Arauz izan daitekeen gehieneko laguntza. Eta jatorrizko agiri hauek aurkezten ditut, udalean konpultsatzeko:

\* Eskaera ofiziala.

\* Ikastegiaren ziurtagiria, hauek adierazten dituen: ikaslearen identifikazio datuak, ikastaroaren kostua (irakaskuntza, mantenu eta ostatu gastuak bereizita, barnetegia izanez gero), egindako ikastaroa (maila eta eskola orduen kopurua adierazita), hasiera eta bukaera egunak.

\* NANa edo AIZ.

\* Xede bererako beste laguntza batzuk onartu edo jaso izanaren ziurtagiria, hala dagokionean.

\* Hirugarrenen fitxa, laguntza ordaintzea nahi den banketxearena.

Gainera, agiri osagarri hauek ere aurkezten ditut (ez da nahitaezkoa eskaera egiteko garaian):

\* Ikastaroko asistentzia mailaren ziurtagiria; ahal izanez gero, emandako ordu guztiekiko bertaratzeko orduen ehunekoa adierazita.

\* Fakturak eta merkataritza edo administrazio balioa duten gainerako frogagiriak.

\* Ordainketaren frogagiriak.

Datuak egiaztatzea - kontsultaren aurka egitea.

Egiaztatu daitezkeen datuak eta agiriak.

Lapuebla de Labarcako Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekaritza sistemen bidez, Administrazioaren esku dauden datuak egiaztatu eta kontsultatzeko eragiketak egingo ditu, salbu eta zuk horren aurka zaudela adierazten baduzu (kasu horretan, dokumentazioa aurkeztu beharko duzu).

Datuak edo agiria: Aurka egiten dut.

- Ogasunarekiko (AFA eta udala) ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiria.
- Udal errolda ziurtagiria.

Zure datuak egiaztatzearen aurka bazaude, markatu X.

Aurka egotearen justifikazioa: aurka bazaude, horren zergatia azaldu behar duzu (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua).

Bat etorriaz Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin, inprimaki honetan jasotzen diren datu pertsonalak fitxategi automatizatu bati erantsiko zaizkio, udal honen barruan erabiltzeko bakarrik. Datuen titularrak datuak zuzentzeko edo ezerezteko eskubidea erabili dezake, legean ezarritako moduan, udalari hala eskatuta.

Lapuebla de Labarca, 2026ko ekainaren 12a

*Alkatea*

**MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ**